

## UDAL-BATZARRA 06/08

### UDAL-BATZARRAK, 2008ko URRIAREN 1ean EGINDAKO OHIKANPOKO BILKURARI DAGOKION AKTA

#### **PARTAIDEAK:**

#### **ALKATEA:**

Pedro M<sup>a</sup> Peñagarikano Labaka

#### **ZINEGOTZIAK:**

Ainitze Etxaniz Iraola  
Gorka Otxoa-Aizpurua Arrizabalaga  
Gregorio Zuaznabar Urkola  
Eider Garmendia Arrieta  
Alazne Ruiz Luluaga  
Fidel Azpiroz Arrillaga  
Jose Ignacio Otermin Garmendia

#### **IDAZKARIA:**

Nekane Agirresarobe Etxeberria

ANOETAko Udaletxean, 2008ko urriaren 1ean iluntzeko zazpi terdiak direnean eta aurrez dei egin ondoren, Udal-Batzarra elkartu da, ohikanpoko Bilkura egin asmoz Pedro M<sup>a</sup> Peñagarikano Labaka alkate jaunaren mahaiburutzapean eta alboan aipatzen diren Zinegotzi guztiek parte hartzen dutelarik; Joseba Agirrezabala Aiestaran zinegotzia ez da etorri eta ez du arazorik adierazi. idazkaria, Nekane Agirresarobe Etxeberria andrea.

#### **1.- EUSKAL HERRIAK BIZI DUEN SALBUESPEN EGOERA SALATZEKO MOZIOA.**

Alkate jaunak ondorengo mozioa irakurtzen du:

*“PSOEk Gobernuak aspalditik idatzitako gidoia hitzez hitz bete da: Auzitegi Goreneko 61. Salak EAE-ANVeta EHAK legez kanpo utzi ditu. Eta bi ilegalizazio berri hauei gehitu behar diogu Aministiaren aldeko mugimenduko 21 kideren aurkako espetxe zigorrak eta Askatasunaren legez kanporatzea eta, oro har, azken asteetan eman diren tortura kasu lazgarriak, atxiloketa eta espetxeratze arbitrarioak, bahiketak, manifestazio debekuak, udaletxez udaletxe eta erakundeetan ematen den apartheid-a, eta abar luze bat. Hitz gutxitan: salbuespen egoera larria bizi du Euskal Herriak, gure herrian ez dago demokraziarik.*

*Euskal Herrian ez dago demokraziarik. Espainiar estatuan frankismoak bizi-bizirik jarraitzen duelako. Orain 30 urte ez zen frankismoarekin bukatu, ez zen bentako trantsiziorik izan. Espainian, erregimen frankistaren oinordekoek, epaitegiek, epaileek, komunikabideek, politikoez agintzen dute oraindik ere, eta PSOEek ez du inolako eskrupulurik eta lotsarik frankistekin lerrokatzeko, frankismoaren kontra borrokatu zutenak espetxera bidaltzeko, gure herrian hizki larriz idatzitako salbuespen egoera ezartzeko, Espainiako kartzelak independentistentzat kontzentrazio eremu bilakatzeko... Hori guztia helburu jakin batekin: ezker independentismoarekin, eta oro har, Euskal Herriaren askatasun nahiarekin behin betikoz amaitzeko.*

*Euskal Herrian aldaketa politikorako aukera zabalik dago eta PSOEek, salbuespen egoera basatienez ezarritik, autodeterminazio eta lurraldetasun eskubideetan oinarritutako aldaketa politikoa galarazi eta gaur egungo esparru konstituzional-autonomikoa kosta ahala kosta iraunarazi nahi du, duela 30 urte*

El Sr. Alcalde procede a dar lectura a la moción que dice como sigue:

egin bezalaxe, indarrez iraunarazi ere. Horretarako aldaketa horren motorra den ezker abertzalea txikituz eta Euskal Herriaren eskubideen aldeko jarduera oro jazarriz.

Aitzitik, ez da PSOE, Euskal Herriaren ukazioa, zatiketa eta menpekotasunean oinarritutako marko konstituzional-autonomiko antidemokratiko honen defentsan ari den eragile bakarra. Izan ere, zeregin horretan, beste behin ere, duela 30 urteko iruzurrean parte hartu zuten eragile berberen laguntza izaten ari delako.

30 urte daramatzagu marko konstituzional-autonomiko honen baitan eta inoiz baino agerikoagoa da marko horrek, Euskal Herriaren herri eskubideak ahalbideratzenetik urrun, horien ukazioa iraunarazteko bitartekoa dela eta hartara, marko horrek ez duela inolaz ere gatazka politikoaren gainditzea ahalbideratuko. Are gehiago, marko konstituzional-autonomiko honek, 30 urte geroago, frankismoa itzultzea ahalbidetu du, salbuespen egoera ezartzea.

Euskal Herriak demokrazia, askatasuna behar du. Euskal Herritarrok gure etorkizuna libreki erabakitzeko eskubidea eta almena behar dugu. Eta horretarako, ezinbestekoa da Espainia eta Frantziako konstituzioen arresia bota, gaur egungo esparru konstituzional-autonomikoa gainditu eta marko demokratiko bat erdiestea, Euskal Herria nazio gisa aitortuko duena eta euskal herritarrek proiektu politiko guztien artean, independentziarena barne, erabaki ahal izan dezaten ahalbideratuko duena.

#### **EBAZPENAK:**

- Udal honek indar politiko guztiek Euskal Herriko bizitza politiko, sozial eta kulturean berdintasun baldintzetan parte hartzeko eskubidea dutela aldarrikatzen du.
- Udal honek ilegalizazio estrategia euskal herritarren nahiz Euskal Herriaren eskubideen aurkako eraso bortitza dela adierazten du.
- Udal honek alderdi politikoaren ilegalizazio estrategia normaltasun politikotik urrundu eta gatazka politikoa elikatzen duela adierazten du.
- Udal orok herritarren borondatea behar du oinarri. Hortaz, udal honek, herritarren borondatearen aurkako lege, epai edota erabakiei ez die inolako zilegitasunik aitortzen.
- Udal honek herritarrek aukeraturiko ezker abertzalearen zinegotziak eta parlamentariak, eragile eta mintzakide politiko gisa onartzen ditu.
- Udal honek ezker abertzalearen parte hartze politiko osoa ziurtatu ahal izateko konpromisoak hartuko ditu.
- Udal honek euskal jendarteak nahi eta eskatzen duen aldaketa politikoa, Euskal Herriaren autodeterminazio eta lurraldetasun eskubideetan oinarrituko den aldaketa, gauza dadin bere ekarpena egiteko prest dagoela adierazi nahi du.
- Udal honek, alderdi interesen ginetik, zazpi herrialdeetako euskal herritarrok Euskal Herriaren etorkizunaz erabakitzeko eskubidea ahalbidetuko duen marko demokratikoren alde lan egiteko konpromisoa hartzen du.
- Udal honek ilegalizazio strategiaren bidez Euskal Herrian ezarritako salbuespen egoera salatzeko eta euskal herritarren eskubideak nahiz borondatea errespetatu dadin exijitzeko "Herriaren borondatea errespetatu: ilegalizaziorik ez!" lelopean konzentrazio bat egiteko deia luzatzen du eta herritarrei konzentrazio horretan parte hartzeko gonbitea luzatzen die.
- Mozio honen bidez onartutakoa herritarrei zein komunikabideei jakinaraziko zaie".

Fidel Azpiroz zinegotziak, zera adierazten du:

"Guk, idatzi honekin ados gauze zaitxo batean nabarduraren bat eta beste kenduz. Ematen diren ebazpenekin ere ados gaude; esan bezala zatitxo bat kenduz gainontzekoa onartzen dugu".

Ondoren, Jose Ignacio Otermin zinegotziak alkate jaunari idatzi bat ematen dio.

A continuación el concejal D. Jose Ignacio Otermin felicita un escrito al Sr. Alcalde.

Alkate jaunak zera adierazten du:

*“Nik uste, mozioa hau da, dan bezalakoa. Guk honen berririk ez dugu izan Momentu honetan, hau onartzea proposatzen dugu. Beste hau tratatu nahi izanez gero, gai ordenean ez dagoenez, bozkatu beharko genuke tratatu ala ez. Bide zuzena hori izango litzateke, beraz hori egingo dugu”.*

Segidan, alkate jaunak bozketara ematen du Otermin jaunak aurkezturiko idatzia ez onartzea, ondorengo emaitza lortuz.	Seguidamente el Sr. Alcalde somete a votación la no admisión a trámite del escrito presentado por el concejal Sr. Otermin; obteniendo el siguiente resultado:
---	---

**Aldeko Botuak/Votos a favor:** SEI/SEIS (Pedro M<sup>a</sup> Peñagarikano, Ainitze Etxaniz, Gorka Otxoa-Aizpurua, Gregorio Zuaznabar, Eider Garmendia, Alazne Ruiz)

**Aurkako Botuak/Votos en contra:** BI/DOS (Fidel Azpiroz, Jose Ignacio Otermin)

**Abstentzioak/Abstenciones:** BAT ERE EZ /NINGUNA

Emaitzaren arabera, Otermin jaunak proposaturikoa ez da onesten.	Por lo que a la vista de los votos emitidos no se acepta lo solicitado por el Sr. Otermin.
--	--

Ondoren, alkate jaunak “EUSKAL HERRIAK BIZI DUEN SALBUESPEN EGOERA SALATZEA” mozioa bokatzeraz eramaten du, ondorengo emaitza lortuz:	Acto seguido, el Sr. Alcalde somete a votación la moción “EUSKAL HERRIAK BIZI DUEN SALBUESPEN EGOERA SALATZEA”, obteniendo el siguiente resultado:
---	--

**Aldeko Botuak/Votos a favor:** SEI/SEIS (Pedro M<sup>a</sup> Peñagarikano, Ainitze Etxaniz, Gorka Otxoa-Aizpurua, Gregorio Zuaznabar, Eider Garmendia, Alazne Ruiz)

**Aurkako Botuak/Votos en contra:** BAT ERE EZ /NINGUNA

**Abstentzioak/Abstenciones:** BI/DOS (Fidel Azpiroz, Jose Ignacio Otermin)

Beraz, bozketaren arabera, aipaturiko mozioa onetsi egiten da.	Por lo que a la vista de los votos emitidos, se aprueba la repetida moción.
--	---

Eta beste aztergairik ezean, Alkate-Lehendakari Jaunak bilera amaitutzat jotzen du iluntzeko zortziak laurden gutxi direnean, eta neuk Idazkariak ziurtatzen dudalarik.	Y sin más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde-Presidente da por finalizada la sesión a las diecinueve horas y cuarenta y cinco, lo que yo, la Secretario certifico.
---	--